

Agur, Martin, euskaldun unibertsala

Carlos Garaikoetxea

Argia, 1.962. zk., 2004-10-17: 30-31.

Aspaldidanik genuen galduko zintugun beldurra, baina, susmoak susmo, horren pertsona maitearen galerak gogor kolpatzen gaitu beti. Zure kasuan, Martin, oso adiskide matea izateaz gainera, hain zinen gure herriaren adierazle!

Zeure bizitzako periploaren azkenetik hasita, nazio honen arimarekin eta errealtatearekin zenuen identifikazioagatik, berak hainbat aldiz bezala, pertsekuzio bidegabe eta laidogarria pairatzen zenuen. "Tribunal bereziak", beti "Ordena Publiko Tribunal" arbasoa gogora dakarkigunak, gandutu egin nahi izan zuen zu bakezko gizona eta demokraten adibide zinela. Zu, alajaina, horrenbeste irakats diezaiekezun hori, hala pertsonaren duintasunaz, nola zeure ibilbide politikoaren garbitasunaz eta zeure lanbideko jardunaren humanitate handiaz! Eraso baldar horrek, ezbairik gabe, samin handia sortu zizuen zuri eta zeurei, baina euskal gizartearen erantzunak eman bide zizuen kontsolamendua. Izan ere, gutxitan etorri ohi dira bat desagrabioan eta omenaldian, zure kasuan bezala, instituzioak eta Euskal Herriko gizarte-maila herrikoienak. Baina halaxe da, izan. Nahiz eta, zure bizitzako ikurraren –Euskal Herriaren eta euskararen– kezka bera izan, maiz aurrez aurre zebiltzan gure gizarteko hainbat sektore, eta, halaz guztiz, estimuzko kointzidentzia harrigarria gertatu zen beti zueganako.

Martin, zuk, zeure bizimoduaren bidez azaldu zenuen nazionalista terminoak anitz esanahi dituela berekin. Badela legezko nazionalismo bat, beste herriei, beren borondatearen kontra, legerik, kulturarik eta hizkuntzarik ezartzen ez diena; bere kultura propioa gordetzea eta garatzea eta bere interes legezkoak defendatzea besterik nahi ez duena, eta badela beste bat, inposatzailea eta azpiratzailea, gainerakoak fagozitu nahi dituen eta lehen deskribatuarekin ikustekorik ez duena. Horregatik, Espainiako errepresiotik ihes egin zuten beste euskaldun asko bezala Venezuelak hartu zintuenean, euskaldun eta venezuelar eredugarria izan zinen. Zeure idatzietan erakutsi zenuen herri harekiko identifikazio sakona, batik bat lagun xumeenenganakoa. Eta, jakina, indigenenganakoa, zeinek nazionalista eta demokrata onaren sintonia aurkitzen baitzuten zuegan; zeure kulturaren eta besteenen geroa kezkatua ageri zatzaizkien.

Ez da harritzekoa, bada "Euskaldun Unibertsala" tituluarekin bereizi izana. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zenuen... neurri bereko zuhurtziaz obserbatu zenituen Euskadi edo Venezuela bezain gizarte ezberdinak; kazetaria izan zinen, nobelagilea, eta, bereziki, kontakizun laburren maisu; geure historia, hainbatetan ezkutatu edo deformatu, narratu zenuen. Akademikoa eta euskararen kausari atxikia, eta, esan gabe doa, inoiz ere erantzukizun politikoa saihestu gabea; beti giza eskubideekiko bide zeharo demokratikoak baliatuz, gainera. Euskarari zenion atxikimendua eta zeure ontasuna tarteko, erbesteko gobernu bateko lehendakariorde izan ondoren ere, zalantza-izpirik gabe onartu zenigun klandestinitatez geroztiko lehenbizikoan euskararen saila zuzentzea.

Bagenekien, eta zeuk inork baino hobeto, euskarak zer balio zuen euskal nazioak biziraupen propioa izan zezan. Zeure etsaiek dakiten bezalaxe, bestalde, Euskal Herrian bertan, autogorrotzko manifestazio erdeinagarri batean, jipoitzen dutenean!

Zutaz, Martin, esan izan dute ezen Herriaz eta haren kausaz zenuen ikuspegiak gainditu egiten zuela zure militantzia politikoa. Halaxe zen, bai, zeren horrela izan behar du beti, nahiz eta, hala ere, izate hori ezin dugun aitzakiatzat hartu bakoitzak eguneroko borroka politikoaz dugun ikuspegiarekin ongien sintonizatzen duen formazio organizatuaren lana babesteko dedikaziorik eta sakrifiziorik ez egiteko. Horregatik, zure izaera ere ezagutzen genuelako, ikuspegi partidista soilaz gaindiko kondizio euskaltzalearen jabe zinela bagenekielako, beti estimatzen genuen zure konpromisoa, eta efikaziarengatik enkoadratzen zintugun formazio organizaturen batean... Zer neurritan, gainera!

Gogoan zaitut oraindik, ia irudiak abaildua, Koldo Mitxelenaren, Joseba Elosegiren, Xabier Aizarnaren eta beste laugn ahaztezin batzuen ondoan, kartekez josia, Ajuria Eneako atarian, fundatu berria zen zure alderdiarentzat, Eusko Alkartasunarentzat, euskal hedabide publikoetan tratu justuago bat eskatzen... Dena dela, deskribatutakoaren gisako episodioak episodio, eta zure etengabeko konpromisoa konpromiso, beti gorde duzu osoan zeure Herriaren kausaren aldeko langile izatearen kondizio esentziala, eta eremu euskaltzale orotan izan zara errespetatua eta maitatua.

Zu bezalako pertsona bat hiltzen denean, topikoa dirudi esatea ezen beti bizirik izango dela gure artean, bere legatu izugarriarekin. Bada, Martin, Euskaldun Unibertsala, esana inoiz ez da izango zure kasuan bezain justifikatua.